



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA

## **Portugaleteko uribilduan zeharko bisitaldi kulturala Museoen Nazioarteko Egunean**

Abellanedan, 2015eko maiatzaren 11n

Enkarterrietako Museoak bisitaldi kulturala antolatu dau Museoen Nazioarteko Eguna ospatzeko. Bertan dagoan IN INSULA MARIS aldibaterako erakusketea bisitatuz hasiko da ekitaldia eta Portugaleteko uribilduan amaituko da, non parte hartzaileek ezagutu ahal izango daben uribildu horren itsasgintzagazko tradizioa eta bertako itsas-familiarik esanguratsuenak lotutako lekuak.

Bisitaldi kulturala maiatzaren 16an izango da eta “In Insula Maris. Enkarterriko ontzi mundua: Portugalete eta Somorrostroko Harana” erakusketearen osagarritzat antolatu da. Ezkerraldearen historiaren alderdi garrantzitsua, ahaztuta egoana, berreskuratzen da Enkarterrietako Museoaren ekimen horri esker. Ehundaka eta ehundaka euskaldun ontzietara igon eta munduko itsasoetan zehar ibili ziran. Asko izan ziran Somorrostroko antxinako haraneko marinelak, merkatariak, kortsarioak, almiranteak, jeneralak, itsasoko eta gudako kapitainak, edo itsas-postako kapitainak eta marinelak.

Ekainaren 15era arte Enkarterrietako Museoan egongo dan erakusketan maketa bi dagoz, besteak beste, bat erakusteko zelangoa zan itsasadarra XVIII. mendean eta, beste bat, Portugalete XVI. mendean inguruan zelan izan zan ikusteko. Bestalde, Itsasadarreko portuok burdinaren esportazioari jagokonean izan eben garrantzia azpimarratu gura da horretarako sortutako zenbait osagai eszeneografikoren bitartez. Portugaleteko burdin kaiaren errekreazio bat be egongo da ikusteko moduan.

Hori eta gero, bisitaldi kultura Abellanedatik abiatuko da mundu horregaz lotutako leku esanguratsuak ikusteko, esaterako Montellanotarren Kapera (XVI. mendekoa), Pedro de Ugarteren estatua (XVI. mendekoa), Juan de Ugarteren Santiagoren Kapera (XVI. mendekoa) eta itsas-familiek dohaintzan emondako piezak, danak Andra Mariren eleiza barruan dagozanak.

Itsasketaren aztarnei jarraituta, ibilbide kulturalaren bidez familia horreen etxebizitzak bisitatuko dira, esaterako Salazar-Galindo, Sota eta Vallecillatarren jauregiak eta Salazartarren torretxea. El Solar plazan geldialditxo egingo dau taldeak kostako bateriaren ondoan eta, ostean, Burdin Kaiaren (antxinako sardinen erribera) eta La Canilla pasealekuan (antxina Ribera de las venas izenez ezagutzen zana).

Ekimena Batzar Nagusien jabetzapeko museoak antolatutakoa da; doan izango da eta zapatu honetan, maiatzaren 16an, goizeko 10:00etatik eguerdiko 14:00etara bitartean burutuko da. Leku mugatua dagoenez, aldezaurretik izena emon beharra dago enkarterrimuseoa@bizkaia.net helbide elektronikora idatzita edo 94 650 44 88 zein 94 610 48 15 telefonoetara deituta.

-----



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

## **Itinerario cultural por la villa marinera de Portugalete en el Día Internacional de los Museos, este próximo sábado**

Abellaneda, a 11 de mayo de 2015

El Museo de Las Encartaciones celebrará el Día Internacional de los Museos con una ruta cultural que arrancará en Abellaneda para visitar la exposición temporal IN INSULA MARIS, y terminará en Portugalete en donde los asistentes descubrirán el legado marinerero de esta villa y lugares estrechamente relacionados con las familias marítimas más relevantes.

El itinerario guiado de este sábado, 16 de mayo, servirá de complemento a la exposición “In insula maris. El mundo naval de Las Encartaciones. Portugalete y el valle de Somorrostro” del museo encartado que recupera una parte fundamental de la historia de la Margen Izquierda y de Las Encartaciones, injustamente olvidada, descubriendo relatos de cientos de vascos que surcaron en navíos los mares de medio mundo. El antiguo valle de Somorrostro estuvo plagado durante varios siglos de comerciantes, corsarios, almirantes, generales, contra maestres, capitanes de mar y guerra, o marinos de correos marítimos.

En la exposición del Museo de Las Encartaciones, abierta hasta el 15 de junio, se muestran maquetas que dibujan los perfiles de La Ría en el siglo XVIII y una visión en miniatuara del Portugalete del siglo XVI. De la misma manera, se han configurado elementos escenográficos que pretenden recordar la importancia de los puertos de la Ría como lugares de exportación de mineral y hasta una recreación del muelle de hierro de la villa jarrillera.

La expedición cultural, que partirá en autobús desde Abellaneda tras descubrir la exposición, visitará después los rincones portugalujos que guardan relación con este mundo como la Capilla de los Montellano (siglo XVI), la Talla de Pedro de Ugarte (siglo XVI), la capilla de Santiago de Juan de Ugarte (siglo XVI) o las piezas que fueron donadas por familias marineras, presentes todas ellas en el interior de la Iglesia de Santa María de la villa jarrillera.

Siguiendo los vestigios del mundo marítimo, la ruta cultural indagará en las residencias de estas familias, como los palacios de Salazar-Galindo, Sota y Vallecilla, y la casa torre de los Salazar. En la plaza del solar de Portugalete, el grupo se detendrá en la antigua batería de costa, y, posteriormente, en el Muelle de Hierro (antigua Ribera de las sardinas) y en el Paseo de La Canilla (conocida en el pasado como Ribera de las venas).

La actividad organizada por el museo propiedad de las Juntas Generales, es gratuita y se desarrollará entre las 10 y las 14 horas de este próximo sábado, 16 de mayo. Es necesaria inscripción previa en el correo electrónico [enkartermuseoa@bizkaia.net](mailto:enkartermuseoa@bizkaia.net) o en los teléfonos 94 650 44 88 y 94 610 48 15, ya que las plazas son limitadas.